

ELIZA ETA EUSKAL KULTURA

Paulo Agirrebalzategi

SARRERA lau puntutan

Gogoetaldi honetarako eman zaigun titulua era honetara idatzia dago: ELIZA ETA EUSKADIKO KULTUR ALDERDIA. Beste titulu hori emanez, egoki ulertu dudala uste dut Astealdi honen antolatzaileen asmoa. Dena dela, aukeratu dudan tituluaeren arabera bideratu nahi nuke oraingo gogoeta hau.

Honi hasera eman aurretik, ELIZA eta KULTURA nola ulertzen ditugun argitu beharra dago, adigai biak bait daude eztabaidan, Euskal Herriari dagozkionez batez ere. Aurrenik adigai bien esanahia banan emango dugu; gero bien arteko berezko lotura aipatuko dugu; azkenik, sarrera honetan emandako argitasunen arabera, gogoeta honen haria aurrez emango dugu.

1. *Eliza* esatean, ez dugu zera abstraktu bezala ulertuko, ez eta Eliza unibertsal bezala hartuko ere. Euskal Herrian mendetan zehar finkatu den Eliza konkretua dugu gogoan. “Eliza Euskadin”, “Euskadiko Eliza” eta “Euskal Eliza”: hirurak erabiliko ditugu; ez, ordea, nahasian. Dena dela hirurek nolabait Eliza partikular edo lekuko Eliza adierazten dute.

Baina mintza ote gaitezke benetan Euskal Herriko *lekuko Elizaz*, iparraldekoaren eta hegoaldekoaren bereizkuntza gogoan eduki gabe?

Historiari begiratu, Euskal Herriko Eliza zatikatuaz mintzatu beharko dugu; etorkizuneko gogo eta asmoei begiratu, berriz, euskal Elizaz, besterik gabe, mintza gaitzkeela uste dut. Dena dela, Euskal Herriaz mintza gaitzkeen neurrian, Euskal Herriko Elizaz eta euskal Elizaz ere egin dezakegu. Beti ere gogoan eduki beharko dugu azken mendeotan iparraldeko Elizaren eta hegoaldekoaren historiak desberdin samarrak izan direla.

Eliza ikus daiteke, ordea, *misterioa* den aldetik, *elkartea* edo *herria* den aldetik, eta *instituzioa* den aldetik. Hemen Eliza ofiziala dugu aurrenik gogoan, hau da, Eliz instituzioa eta instituzio gizonak (instituzioaren ordezkariak, zaintzaileak eta arduradunak); eta gogoan dugu, bestalde, oinharriko Eliza, hau da, Eliza-herria beronen dinamika eta guzti. Eliza ofiziala eta oinharrikoa ez ditugu berez elkarren kontrako eta arerio bezala ikusten, baina bai tirabira dialektiko batetan; eta sarritan konkretuki elkarren etsai bezala ere bai.

Elizaren eta kulturaren harremanak kristau herri horretan aurkitzen du bere dinamismoa eta Eliz instituzioan mamitzen eta gauzatzen da historian zehar.

2. *Kultura* esatean, euskal kultura adierazten dugu: Euskal Herriaren sormenak landua (ez kanpotik ezarria) eta instituzioetan eta bestelako kultur agerpide guztietan mamitua eta gauzatua dagoena.

Baina ba ote dago Euskal Herri osoa biltzen duen euskal kulturaz mintzaterik? Bi aldetatik eragotzi izan zaigu euskal kulturaz mintzatea, eta aski lotuak daude alde biak.

a) Euskal kultura mendetan zehar bi kultur barrutitan banatua egon da: frantsesa eta espainola. Bi alderdietatik zapaldu dute euskal kultura eta suntsitu nahi izan da. Orduan ahogoxoz eta demagogia hutszez Espainiatik edo Frantziatik nolabait haintzakotzat hartzen gaituztenean, gure berezitasun eta guzti, “Frantziako kulturaren altxor” bezala edo “Espainiako kulturaren altxor” bezala hartzen gaituzte; euskal kultura ukatuaz, hain zuzen ere.

b) Euskal kultura ukatzeko beste bide bat kulturaren adiera bera izan da (ez kultur inperialismoa). Zer da kultura, beraz, euskal kultura ukatzen dutenentzat? Filosofo handiek, idazle handiek eta artista handiek sorturikoa eta landurikoa litzateke kultura. Eta honelako “kultur gizonen” izenik ezagutzen ez dutelako Euskal Herrian edo horrelakoen obrak kanporatu dizkigutelako edo Espainiako edo Frantziako “kultur nagusietan” irentsi dituztelako, euskal kulturarik ez dagoela esateko biderik badutela uste dute. Baina Euskal Herriaren berezitasuna hain

nabarmena delarik, orduan edozein inperialistek eman dezakeen azalpena ematen dute: euskal berezitasun hori kulturaren *hasikina* besterik ez litzateke (hasikinetan geratua litzatekeen euskara eta euskal literatura txiroa) edota kulturaren *hondakina* litzateke (folklore bitxia, euskal jokoak, euskal dantzak eta kantak). Dena dela, inolaz ere ez kulturaren izen handia merezi lukeen ezer.

Honelako ukapenen azpian eta oinharrian kulturarekiko ideia intelektualista eta aristokratiko bat dago. Herriak berak sortu eta landu duen hizkuntza, literatura eta artea ezin da kulturatzat hartu nonbait, ez eta folklorearen benetako kulturazko esanahi jatorra ere. Eta horrela euskal kultura ukatzean, Euskal Herria bera ukatu nahi da.

Gure gogoetaldi honen haseratik euskal kultura eta Euskal Herria baieztatzen ditugu.

Kulturaren lehen definizio bezala hauxe eman dezakegu: “Herri edo etnia baten bizimolde berezia”. Beraz, euskal kultura baieztatzen baldin badugu, Euskal Herria ere baieztatua genuke.

Lehen definizio hori pixka bat xehetuaz eta zehaztuaz, hona hemen nola azal genezakeen kulturaren esanahia:

- Herri edo etnia baten (edo gizarte baten) balio eta adiera sistema da kultura (“sistema de valores y significados”).
- Balio eta adiera horik herritarrek sorturiko eta herriak onhurturiko eta bereganaturiko agerkaritan mamitzen eta konkretatzen dira: hizkuntzan, literaturan, filosofian, ohituretan, instituzioetan, artelanetan, teknologian, erlijio moldetan, etab.
- Agerkari konkretu hauk Herriaren balio eta adiera haien sinbolo edo ikur bezala gertatzen dira.

Euskal kultura, bada, Euskal Herriak duen balio eta adiera sistema bat da, bere hizkuntzan, teknologian, artelanetan, instituzioetan, ohituretan, legeetan eta bestelako agerkarietan konkretatu eta sinbolo bidez ematen duena. Baina ez da sistema itxia eta tradizio lotua; dinamikoa da, herria bere sormenaren bidez eta eguneroko lanez kultura sortzen eta eratzen (eraberritzen) ari bait da.

Honela ulertzen baldin badugu kultura, ez dugu zalantzarik Euskal Herriak baduela bere kultura, eta kultura honek herria bera baieztatzen duela; nahiz eta kultura eta herri hauen osotasuna, batasuna eta integrazioa nolabaitekoak bakarrik izan.

3. *Kultura eta Eliza* bat-batean ikusten baditugu, zalantzarik gabe elkar gurutzatzen dute: Eliza, kristau herri historikoan konkretatzean eta instituzio bihurtzean, berez kulturaldu egiten da, kulturaren alor bat

bezala bihurtzen da, kulturaren erlijio alorra betetzen eta konkretatzen duena. Bestalde, Eliz instituzioaren barnean bizi den kristau herria eta kultura berezi horren barnean bizi den herri etnikoa sinbiosi batetan bizi dira, baldin Elizak bere txoko sozial eta kultural bat egiten ez baldin badu, edota kultur barruti batetan antikulturnazko bazter batetara biltzen ez baldin bada.

Honela, beraz, tituluari agertzen diren bi elementuak, *Eliza* eta *Euskal kultura*, elkarrekin berezko zerikusi handia duten elementuak dira. Zernolakoa izan den eta izango den horien harremana eta lotura: horra hor gaurko gure gogoetaldiaren gaia.

4. *Kultura zera historikoa da*, hau da, herriak historian zehar lantzen eta konkretatzen duen bizimoldea. Historiak, giza historiak, ordea, hiru dimentsio ditu, eta hiruretatik, uler eta ikus daiteke:

- *Tradizio* bezala, lehenari begira.
- *Situazio* bezala, orainari begira.
- *Kreazio* bezala, geroari begira.

Gure gogoetaldi hau hiru sailetan banatzeak, beraz, kulturaren hiru dimentsio hauei erantzuten die. Aurrenik, kultura *tradizio* bezala batez ere harturik, euskal kulturaren eta Elizaren harremana nola ikusten den azalduko dugu; bigarrenik, kultura *situazio* bezala ulertuaz, euskal kulturaren eta Elizaren lotura eta harremana nola izan diren agertuko dugu; azkenik, kultura *kreazio* bezala hartuz eta etorkizunari begiratuz, euskal Elizaren eta euskal Kulturaren aukera berri batek nondik nora joan beharko lukeen adieraziko dugu.

I. EUSKAL HERRIA ETA ELIZA KATOLIKOA

Euskal Herrikoa bakarrik ez bada ere, azken garaitan nabarmendu izan da hemen ere joera bat: hau da, kristautasunaren eta herritasunaren arteko harremana (lotura ala etena) filosofi maila teorikoan aztertzearena. Teologiak badio, bai, kristautasuna unibertsal dela eta herri eta kultura bakoitzari dagokiola bere berea egitea; baina beste joera horretan, antropologiatik edo historiatik abiatuak, filosofia antropologikoaren aldetik ipintzen da arazo hori.

Kultura herri baten *tradizio* bezala ikusi ohi da; areago, herriaren arima esentziala bezala ikusi ohi da, tradizioan mamituriko eta konkre-

taturiko arima, halegia. Eta Eliza ere beste zera traszendental bat bezala ikusi ohi da, bere dogma eta instituzio betikoetan gorpuzten eta konkretzen den izpiritu bezala. Orduan, arazoa hauxe da: bi izpiritu traszendental horien artean, Herri izpirituaren eta Eliz izpirituaren artean nolako harremana dagoen: elkarrekiko kidesetasun bat ala kontraktotasun bat.

Euskal Herriari dagokionez, kristautasunaz ez baina Eliza katolikoaz edo katolizismoaz ipini ohi da arazoa, hau izan bait da eta oraindik ere hala da hemengo kristautasunaren agerkaririk nagusi-nagusiena. Bi izan dira, bada, adierazpen filosofiko horik:

1. Eliza katolikoa (kristautasuna) euskaltasunaren kideko.

J. M. Barandiaran izan da, bere etnologi azterketen ondorio bezala edo, sarritan ideia hau eman duena: euskalduna erlijiozalea eta Jainkozalea da. Bere *Lehen Euskal Gizona* liburuaren azken hitz bezala haue txek botatzen ditu, euskaldun prehistorikoaren erlijio ohituren eta sinesteen berri eman ondoren: “hauk dira Euskal Herriko lehen gizakien zenbait sineste eta gogoeten ezagugarriak eta beraiei lotuak patukeria, aztukeria eta irelukeria asko. Hauen muin, erro eta oinharria, ordea, gizakiari eta ikusibirari gaintitzen eta eragiten dien eta oinharritzen dituen izakiaz gogaiera eta sineste bat: Jainkoazkoa, halegia” (115.or.).

Baina Barandiaranek, euskalduna erlijiozalea eta Jainkozalea dela ezezki, berezko kristautasun natural bat bezala aurkitzen du euskaltasunean: “Son la fe y la esperanza cristianas las que, en realidad, han formado el entramado de la vida del vasco durante siglos hasta nuestros días. No faltaron, en verdad, resonancias de otras concepciones de la vida. A éstas se parecen algunas de las que hoy empiezan a tener más eco que nunca entre nosotros, *no ciertamente por ser elementos que brotaron del alma vasca, sino como visiones logradas, a mi juicio, a través de vidrios ahumados en otras latitudes*” (*Rasgos de la mentalidad popular vasca*, en: *Primera Semana de Antropología Vasca*, 95.or.). Esaldi honen arabera, kristautasuna euskaltasunaren arimatik bezala sortzen da eta bizi da; baina beste ideologia eta jokabide zenbait arrotz zaio berez euskaldunari.

Honela nolabait antropologiazko ikerketatik filosofiazko ondorio bat ateratzen du Barandiaranek puntu honetan, nahiz beste zenbaitetan gehiekeriazko ondorioak ateratzekoaren hain kontrakoa izan bera.

Barandiaranek izan du eta badu ondorengorik pentsaera honetan, batez ere zenbait elizgizonen artean. Baina nolabait ideologia bat bezala

bihurtu da pentsaera, bere formulazio eta guzti: EUSKALDUN=FEDEDUN! Antropologiaren, Etnologiaren eta historiaren ondorio bezala ideologiazko printzipio bat atera da: Euskalduna berez fededuna dela (kristau eta katoliko fededuna esan nahi da), eta fededuna ez dena ez dela euskaldun jator.

Pentsaera honen formulaziorik hainbat lekutan aurki daiteke, baina honera euskal Elizaren historigile baten aipamena ekarriko dut: Roland Moreau. Honek argitara berria du (1970ean) Ipar Euskal Herriko Elizaren historia bat; titulu esanguratsu bat eman dio: HISTOIRE DE L'ÂME BASQUE; eta lema bezala edo, tituluaren azpian aipamen hauxe dakar: "L'âme du Pays basque, c'est sa foi religieuse". Kristautasuna, bada, (eta esan dezagun katolizismoa) euskaldunaren eta euskaltasunaren arima bezala da. Historigile honen aipamen bat aldatuko dut honera, euskarara itzulita: "Kristau fedea, izan ere, berezkoa eta kontsubstantziala bezala du Euskal Herri zaharrak: horrek markatu ditu sakonakonetik euskaldunak, hauen kultura, hauen arima". (12.or.); eta urren-go orrialdean dio: "Euskaldunen arima beren erlijiozko fedea da. Uneoro nabarmentzen da fede hau euskaldunen eguneroko jokabideetan, hain sustraitua bait dago; horregatik berdindu ahal izan dira euskalduna eta fededuna, esaera haretan: *euskaldun-fededun!*".

"Euskaldun, fededun" esaerak, bere ideologiazko kutsu eta esanahi eta guzti, bere esanahi eta indar politikoa ere hartu izan du Euskal Herrian, konfesionalismo politiko bati euskarria emanaz. Baina batez ere euskal kristau eta eliz integrismoarentzako argibide nabarmena izan da esaera hori.

Fedea esangura konfesionalez ez, eta bai giza berezitasun oinharritzko bezala hartzen baldin bada, orduan esangura jatorra aurki genezaiokela uste dut esaera horri.

2. Kristautasuna euskaltasunaren etsai.

Aurreko pentsakera horretan kristautasuna eta katolizismoa kultur molde batekin (euskal kulturarekin edo izpirituarekin) berdintzen zen; beste pentsakera honetan, ordea, kristautasuna antikulturna gertatzen da euskaldunarentzat.

Kristautasuna behin baino gehiagotan eta leku askotan ukatu izan da, antikulturnatzat joaz, eta horretarako arrazoinak ere diferenteak izan dira: *filosofikoak* batzu, gizabidearen edo gizatasunaren kontraktatzat jotzen zelako kristautasuna; *praktikoak* beste batzu, gizartezko, politi-

kazko edo kulturazko ekintza eta jokabide jatorraren ukatzailetzat edo eragozpen bezala ikusten zelako kristautasuna.

Gure kasuan antropologikoak edo etnologikoak dira arrazoinak, zuzen-zuzenekoak bederen. Hau da, kristautasuna ez da esaten gizatasunaren kontrakoa denik, baina bai euskaltasunaren, euskaltasun jator baten kontrakoa eta ukatzaile dela.

Pentsakera honen teoriegile nabarmenena, uste dudanez, Krudvig izan da, batez ere bere *Vasconia* liburuan. Honen arrazoinaketa zabalena eta nagusia itxuraz politikaren aldetik doa: “La religión no separa, por desgracia para el pueblo vascón, a éste de sus vecinos. Hubiera sido una suerte, sin duda alguna, para la nación vascona, que en alguna de las muchas diferencias religiosas que se han dado en la Historia, se hubiese afinado alguna de ellas en el pueblo vasco, bien sea que hubiesen continuado siendo paganos los vascos, que la creencia albigense hubiese tomado raíces o que el protestantismo hubiera arraigado en nuestra tierra” (75.or.). Baina barnean etnologikoa edo antropologikoa dela uste dut; aurreko aipamenaren ondoren berehala hauxe dio: “Por desgracia, no ha sido así y los vascos no están separados de sus vecinos por ningún factor religioso, aunque, debido a la tardía cristianización, se note entre los vascos una cierta tendencia a la religión natural, habiendo llegado a afirmar ciertos etnólogos que los vascos son sólo aparentemente cristianos. Quizá por este sentimiento de innato paganismo, se registre la constante antipatía que la Iglesia católica en cuanto tal viene mostrando en todo el curso de la Historia contra nuestra lengua nacional” (76.or.). Eta beheago honela dio: “La Iglesia Romana intenta por medio de los Bárbaros imponer su soberanía a la Vasconia independiente y, como no lo logra por las armas, desviriliza al pueblo, al igual que en otras partes del mundo, imponiéndole un credo contrario a la naturaleza y a sus buenas costumbres” (78.or.); oraindik bide beretsutik zera hau esaten du: “Todo ello era intuido con ese instinto natural a todo pueblo y que va más allá de la razón y por ello siempre que Euskal Herria tenía ocasión, intentaba recuperar su personalidad de una u otra forma, dando sentido nacional al credo extranjero que le había sido injertado” (ibid.).

Hildo beretik, hau da, katolizismoa eta kristautasuna antieuskalduntzat joaz, azken urteotan naturalismoaren mugimendu bat ere sortu izan da, akelarreak eta horrelako beste zenbait pentsakera eta jokabide berpiztu nahian, baina ez dute arrakasta handirik ukan. Dena dela, jakingarria da nola euskalzaletasunarekin lotuta joan den mugimendu hau, euskalzaletasunaren jatorrizko erlijio modu jatorra naturalismoa dela pentsatzen zelako.

Eta honetan, beharbada, J.M. Barandiaranen eta beste etnologari eta historigileren haritik doa pentsakera eta mugimendu hori: hain zuzen ere, euskal etnologiak naturalistatzat jotzen ditu lehen euskaldunak, erromatarrek gureganatu arte gutienez, eta gero ere, kristautasuna finkatuta gero ere, naturalismoaren aztarnak erruz aurkitzen dituzte euskal antropologariek eta historigileek. Lehen aipaturiko Roland Moreau-ren beste aipamen bat ekarriko dut honera, frantsesetik euskaratuaz: “Zein da euskalduna Jainkoarekin lotzen duen lokarria? Bere eskuen bidez, eta bai bere buruaren bidez ere, lurrari lotua dago euskalduna. Eguzkia, urtesasoinak, ereintzaroen eta uztaroen zikloak, hauxe da euskalduna inguratzen duen ingurune kosmikoa. Izadia, kreazioa da euskalduna Jainkoarekin lotzen duen lokarria. Unibertsuak Jainkoaz hitzegiten dio. Euskaldunaren erlijioa kanpoko munduaren bitartez adierazten da: honek sakramentuzko balioa du harentzat, kreaizailearen eta kreakinaren arteko harremanetarako lekua da mundua” (11-12 or.).

3. Eliza euskaldundua? Euskalduna kristautua?

Zeintzu dira euskal antropologiako bi pentsakera kontrako horietarako arrazoinak? Itxuraz behintzat historian dute sustraia biek. Baina historia berbera era desberdinetara adierazten dute nonbait.

Historiari —eta soziologiari ere bai, nahi baldin bada— ipintzen zaion galdera hauxe da, bitan banatua: Eliza, Euskal Herrian bizi den mende hauetan, benetan euskaldundua izan ote da? Eta, euskalduna benetan kristautua izan ote da, edo euskal kultura benetan kristautua izan ote da?

Galdera garratzak dira hauk, bai Elizarentzat eta eklesiologiarentzat, bai Euskal Herriarentzat eta euskal antropologiarentzat.

Eliza-misterioak, Eliza-herriaren bidez eta Eliza-instituzioan, zerbait kulturazko bihurtzera jotzen du: zinez Herri batentzako erantzuna izango bada Ebanjelioa eta Herri horrentzat askapen mezua izango baldin bada, barru-barrutik izan behar du, Herri horren kulturaren barnean izan behar du; horregatik Herri baten askapen misterioa den Eliza-misterioak, instituzio bihurtzean, kulturaldu egin behar du. Horrela, bada, Elizak benetako Eliza izango bada Euskal Herrian, lekukotu eta euskaldundu beharra dauka; horrela bakarrik izango da egiazko Eliza euskaldunontzat eta Euskal Herriarentzat. Eliza-misterioa Herrian Eliza-instituzio bihurtzean, nolabait Herri horren barnetik eta Herri horren kulturatik sortzen da. Beraz Eliza konkretua eta historikoa ez da

Jainkoagandik datorren askapen misterioa bakarrik, eta bai Herri baten sormenetik datorren Eliza historikoa ere. Herriaren kultur sormenak badu zeresanik Eliza historiko, konkretu eta lekuko bat sortzean eta instituzionaltzean.

Horregatik, mendetan zehar Eliza Euskal Herrian benetan euskaldundu ez baldin bada, euskaldunontzat arrotza izateaz gainera, geuzurrezkoa ere gertatu dela esan beharko genuke, bere egiazkotasuna guretzat frogatu ez duenez.

Baina Elizarentzat ezezik, Euskal Herriarentzat da arazo larria hemen nabarmendu nahi duguna. Hainbeste mendetan Euskal Herriak ez duela Eliza berekotu eta euskaldundu ikusiko balitz, beretzako anti-kulturaltzat jo beharko luke Eliza. Mendetan zehar bere bizkarretik eraman duen sasitxerto izango lukete Eliza Euskal Herriak eta euskal kulturak. Eta horrela balitz, gauregun arbuiatzekoa izango luke herriak bere barnean sartu zaion gorputz arrotz hori, euskal kultura bera desintegratzeko arriskutan jarriko bait luke.

Barandiarantzat eta, ez dago zalantzarik Eliza sakon-sakonetik euskaldundua dela eta euskal kultura kristautua dela barru-barrutik. Kristautasunaren eta euskaltasunaren kidetasunak erraztu egin bide du bien elkarganatzea eta elkarbarneratzea. Kristautasunak, beraz, barneki "taxutua" eta "irudikotua" edo konfiguratua luke euskal kultura.

Hala ere, Barandiaranek eta lehen aipatu ditugun beste idazleek ere bai, argi aitortzen dute euskaldun kristauak oraindik ere naturalismoaren elementu asko dituela bere kristau pentsakeran, bizikeran eta jokabideetan. Beste idazle bat aipatzearren, aipa dezagun Anastasio Arrinda, Barandiaranen jarraitzailea berau: "El Pueblo Vasco siempre tan profundamente religioso (al menos en su historia moderna) lleva en su mentalidad popular una buena dosis de superstición, herencia prehistórica y producto de varios miles de años de prácticas supersticiosas... y que se manifiesta muchas veces en su actitud cultural en nuestros días" (*Religión prehistórica de los Vascos*, 297.or.).

Baina elementu hauk azaleko edo alboko elementu bezala ikusten dira euskaldunaren kristautasunean. Oinharrian eta sakonean kristautua litzateke euskalduna eta ongi eta egoki sustraitua eta finkatua kristautasuna euskaldunengan eta euskal kulturaren.

Krudwig-entzat eta, alde batetik egia da euskalduna kristautua izan dela, kristautasuna ezarri zaiolako, nahiz eta harek bere euskaltasunari eta jatorrizko nortasunari eusteko etengabeko ahaleginak eman. Baina bestalde, ez da egia kristautasuna euskaldundu denik: Euskal Herriari eta euskal kulturari gaineitura bezala geratu zaio kristautasuna.

Honela dio Krudwig-ek: “El pueblo vasco, como puede deducirse, nunca ha admitido de buena gana el credo extranjero representado por el catolicismo romano. Aunque hoy en día sea general en nuestro pueblo la adhesión a la Iglesia romana, cualquier observador serio ve que el vasco tiene el paganismo a flor de piel” (81.or.). Kristautua da, beraz, baina ez bere-berea bihurtu duelako kristautasuna, nolabait ezarri egin zaiolako baina.

Gorago esana du liburu berean Krudwig-ek: “Bien se puede decir que la Iglesia católica se representa en Euskal Herria como una fuerza al servicio de la desnacionalización del Pueblo Vasco, y se deberá contar a dicha institución entre los enemigos del pueblo vasco, entre las fuerzas que asesinan el alma nacional de Vasconia”. Era honetara Eliza ez litzateke inolaz ere euskaldundua izango, eta hainbeste mendetan Euskal Herrian bizi arren, oraindik ere arrotza litzateke.

Historiazko eta antropologiazkoa azalpenak azalpen eta adierazpenak adierazpen, Eliza oso finkatua dago Euskal Herrian azken mendeotan behintzat, eta finkatua ezezik bertakotua ere egon dela eta oraindik dagoela ezin uka. Hau ontzat eta egiazkotzat emanaz, astindu eta kritikatu beharko ditugu Elizaren eta euskal kulturaren (Euskal Herriaren) artean mendetan zehar eta bereziki azken urteotan mamitu eta zertu diren harremanak.

II. EUSKAL HERRIKO ELIZA KULTUR INSTITUZIO BEZALA

Inork ez dut uste ukatzen duenik, Elizak indar handia ukan duela azken mendeotako Euskal Herriaren sozio-kultur dinamikan: instituzio oso garrantzizkoa gertatu da, eta alde horretatik aztertu beharra dago begi zorrotzez eta adimen kritikoz Elizaren funtzioa euskal gizarteari eta euskal kulturari buruz azken mendeotan, eta bereziki mende honetan eta azken berrogei urteotan. Hemen eta orain egin dezakegunà, berriz, azterketa eta gogoeta hori bideratzea besterik ez da.

Joxe Azurmendi izan da, uste dudanez, gehienbat aztertu duena, zernolakoa izan den eta nondik nora ibili den Euskal Herriko erlijio kritika: ikus batez ere, bibliografian aipatzen diren bi artikuluz luzeak. Horren ustez, erlijio kritika hau Eliza katolikoaren kritika gertatzen da Euskal Herrian.

Lau maila edo epetan biltzen du autoreen erlijio kritika horren historia (Ik. *Erljio kritikaren krisia*, 14-18 orr.):

1. *Euskaldun* = *fededun* delakoaren ideologia onartua dutenen kritika: esaera hori onartuaz, hain zuzen ere, horien kritika bide honetatik doa: Euskal Eliza euskal herrigintzaren eragile ez izatea edo kontra ere egitea salatzen du.
2. *Euskaldun* = *fededun* esaeraren kontra doan kritika. Jainkoa ez da euskaltasun molde tradizionalista edo integrista baten Jainkoa, ez dago horrelako euskaltzaletasunari loturik. Jainkoa transzendentea denez, iraultzaileena eta ezkertiarrena ere bada. Eskuindarrek monopoliotu duten Jainko hori ukatu egiten da.
3. Jainkoa eta Eliza zerbait transzendente direnez, maila transzendente horretan gelditu behar dute, erlijioa norbanakoaren arazo bezala utziz. Beraz, aurreko pentsaerak eskatzen zuen haniztasuna, honek herrigintzaren autonomia bihurtzen du.
4. Jainkoa eta Eliza ez dira kezka herrigintzan eta kulturgintzan ari denarentzat; areago, kontrako indar gertatzen dira, eta, beraz, arbuiagarri eta arbuiatzekoak iraultzailearentzat.

Lau mailak nabarmen agertzen dira hemen. Une honetan oraindik ere laurak ari dira Euskal Herrian, baina agian indartsuena azken motako kritika da, nahiz eta sakonena ez izan gure artean.

Eliza katolikoari dagokionez, eta azken Kontzilioaren eraberrikuntzaren giroan hitz nagusi bat erabili izan da Eliza horren mendeetako historia luze baten kritika orokorra egiteko: KONSTANTINISMOA! Hitz horren inguruan bildu dira Eliza katolikoaren kontrako kritikak. Uste dudanez, hitz baliozkoa dugu Euskal Herriko Elizaren kritika egiteko ere; baina hemen konstantinismo horrek bere ezaugarri bereziak ere baditu.

Zer da konstantinismoa? Ez da bakarrik eta bereziki, kristautasuna edo katolizismoa Estatuaren erlijio ofiziala izatea. Kultur fenomeno bat da konstantinismoa, Eliza tartean delarik. Elizaren eta Estatuaren bate-ratze horrek zera esan nahi du: Eliz agintarien eta politik agintarien itun moduko bat, horrela kultura gainhartzailea herriari ezartzeko. Erlijioak —kristautasunak gure kasuan— kultura gainhartzaile horren estaltzaile-arena eta babesgarriarena egiten du, erlijioa bera kultura horren alderdi nagusienetakoa delarik.

Honela, kulturak gizartearen eta herriaren bizikera adierazten du-erarik, *situazio* esanahia hartzen du; eta politik eta Eliz agintariek ezarri-tako kultur situazioa delako, agintari horiek ez dute situazio hori alda-tzeko gogorik; alderantziz, situazio kulturazko horri eusteko eta kultura gainhartzaile hori zuritzeko erlijiozko ideologia bat ematen du Elizak, eta horrela ezarritako kultura horren kontrako ahalegin eta mugimendu

guztiak gaitzestera eta zapaltzera jotzen, horretarako aginte politikoari laguntza bikaina eskainiz.

Nola nabarmentzen da euskal konstantinismoa? Bi alderdi nagusitatik aztertuko eta astinduko dugu: *Klerikalismoaren* eta *kolonialismoaren* aldetik. Biak kultur fenomenoak dira, erlijioaren aldetik ikustekoak. Bi berezitasun horiek euskal konstantinismoa argitzen dutela uste dugu.

Euskal konstantinismoa esatean, beraz, Euskal Herriko Elizak euskal kulturari eta Euskal Herriari buruz izan duen jokabide eta harreman konkretu bat adierazi nahi dugu. Badakigu jakin, Euskal Herriko Elizaren historia ez dela hitz horretara bakarrik biltzen ez eta hor agortzen.

1. Euskal gizartea eta Eliza: klerikalismoa eta antiklerikalismoa.

Euskal konstantinismoaren alderdi bat klerikalismoa da, beraz. Zer da klerikalismoa? Argi denez, apaizeriaren pentsabide eta jokabide bat adierazten du. Baina klerikalismo hitza esanahi desberdinez erabili izan da euskal apaizeriari buruz.

Eskuin aldetik klerikalismoaren “bekatua” ezarri zaio euskal apaizeriari, herriaren buruketan parte hartu duenean. Horixe gertatu zen gerra zibilaren garaian eta geroztik; oraindik oraintsu *Indice* aldizkariak alde horretatik jo izan du.

Ezker aldetik, berriz, behin baino gehiagotan salatu izan da euskal klerikalismoa, euskal literaturari dagokionez batez ere, apaizek egina izan delako neurri handi batetan. I. Sarasolaren *Euskal Literaturaren historia* da puntu hau gehienbat nabarmendu nahi izan duena.

Baina benetan euskal apaizen klerikal “bekatuak” ote dira bata nahiz bestea? Euskal klerikalismoa beste bidetatik aztertu behar dugula uste dut.

Herriaren (kulturaren) eta Elizaren arteko harremana nola ikusten eta bizi izaten den, hor dago klerikalismoaren gakoa. Eskuindarrek nahiz ezkerdarrek bi alor bereiz bezala ikusten dituzte nonbait herrigintza eta elizgintza; eta apaizak elizgintzarako lirake. Herrigintzara sartzen diren neurrian, klerikalismoz kutsatzen ari dira apaizak, haien ustez.

Baina klerikalismoa ez datza herrigintza eta elizgintza bereiztean ala bateratzean, eta bai bata nahiz bestea agintaritzat mailatik egitean, herriaren tartetik egin beharrean. Horregatik klerikalismoa Eliz barneko nahiz Elizatik kanporakoa izan daiteke: Elizgintzan nahiz herrigintzan kutsa daiteke apaiza klerikalismoz.

Apaizak bere herri eta kultur eragina indartzeko eta finkatzeko, agintea duten klase gainhartzaileekin bat egiten duenean, klerikalismoz jokatzan ari dela esan daiteke. Klase gainhartzaileak izan daitezke politik agintea dutenak (alkateak edo ministroak), ekonomi agintea dutenak (lur handien jabeak edo kapitalistak), sozial agintea dutenak (midikuak) edo aginte intelektuala dutenak (maisua).

Honela, apaizak, batetik, bere erlijiozko itzala eskaintzen die agintea duten klase gainhartzaile hauei; eta, bestetik, horietaz baliatzen da apaiza herrigintzan (kulturgintzan) bere eragina areagotzeko, indartzeko eta finkatzeko. Klerikalismoa, bada, herritartasunaren kontrakoa da, nahiz eta inoiz herrikoitasunarekin batera joan, klerikalismoa paternalista denean.

Euskal klerikalismoa nabarmena izan da garai batetan, nekazal herri txikietan batez ere. Alkatearen, midikuaren eta maisuaren adiskidea zen apaizak bazuen gizarteko bizitzan eta hezkuntzan bere hitzari eta eritzari indarra emateko bidea. Nolabait apaizak, agintea zuten horiekiko adiskidetzeta eta "ituna" zela bitarteko, azken hitza zuen herriaren gizarteko bizitzan eta kulturen (ohiturak, instituzioak, hizkuntza etab. bideratzeko, halegna).

Klerikalismo modu hau beharbada galtzen ari da. Honela dio P. Xarriton-ek, bibliografian aipaturiko artikuluan: "... Elizaren legeek eta Elizaren buruzagiek, beren lehengo larderia hura iduriz galtzen ari dute. Ez dugu hanbat ikusiko baserriarrik, igandearekin belarretan artzeko baimena, jaun ertorri eskatuko dionik. Are gutiago herri-gizon, langile edo burrasorik bere kristau politikaren, zindikataren edo eskolaren gobernatzeko, apezan ondolik ibiliko denik" (5.or.).

Baina euskal gizarte konplexuago honetan klerikalismoak beste tankera konplexuagoak, baina aurrekoak bezain nabarmenak, hartu ditu. Konkordatuak da klerikalismoaren adibiderik argiena eta nolabait hainbat klerikal jokabide biltzen dituena: horrek instituzionaldu egiten du klerikalismoa. Eta euskal Eliza, batez ere hegoaldekoa, konkordatuaren babesean bizi izan da urte luzetan.

Baina klerikal jokabideen oinharria eta sustraia da eta izan da Konkordatuak, irakaskintz alorrean bereziki. Eskoletan eta Unibertsitateetan erlijioa ezartzeko bidea eman dio Konkordatuak Elizari, horrela bere kultur eragina aginte politikoaren bidez finkatuz.

Baina horrezaz gainera, Euskal Herriaren Eliza Instituzio ofizial eta publiko garrantzizkoa izan da, eta horren arabera, bere kolejoak eta Unibertsitateak edukitzeko aukera aparta ukan du. Berez ez dago Elizak kolejo eta Unibertsitate horik edukitzeko eta kudeatzeko eskubidearen

eta ahalbidearen kontrakorik; baina horien politik, ekonomik eta kultur oinharria eta ingurunea gutxienez ekibokoak direla esan behar da, klerikalismoari dagokionez; ez bait dira sarritan apaizeriak eta Elizak duen indar eta eragin herritarretik sortuak eta kudeatuak, eta bai gizartean agintea duten indarretan eta klasetan finkatuak.

Euskal Herriko Eliza instituzionala, Institutio bezala, klerikala gertatu da, instituzio gizonak politik, ekonomik eta sozial agintea dutenekin elkarturik, horien kultura gainhartzailerari babesa eta itzala eman dizkio-telako.

Euskal Herriko Elizaren klerikalismoa “instituzionaltzearen” kontra euskal apaizek beraiek jokatu dute sarritan, bai eta herriaren antiklerikalismoak ere.

Alde batetik, historian zehar eta bereziki azken urteotan euskal apaiz askok herrigintzan eta herriaren buruketan hartu duen jokabideak Elizaren klerikalismoaren kontrako eginkizuna bete du. Alde hone-tatik, hain zuzen ere, euskal apaizeriak irabazia du, neurri batetan behintzat, bere herritartasunaren fama: hau da, bere herriarekin eta herri honen problemekin bateginik jokatu duela. Hemen berriz ere euskal lite-raturaren eta euskararen fenomeno aipatu beharra dago: behin baino gehiagotan, euskal literaturaren lantzea, euskararen zaintzea (Euskal-tzaindia), etab. apaizen eskuetatik egina izatea, klerikalismotzat jo izan da. (Ez dut uste, apaizek herrigintzan beren pentsakera eta mentalitatea ematea, besterik gabe klerikalismoa dei genezakeenik.) Eta aipaturiko fenomenoak alderantzizko adierazpena behar duela uste dut: hau da, antiklerikalismoaren fenomeno da. Izan ere, apaizek, agintea dutenek ezartzen duten kulturaren kontra, herriaren hizkuntza eta literatura lan-tzen dutenean, antiklerikalismoa egiten ari dira.

Beste aldetik, euskal herriagandik bertatik etorri da Elizaren eta apaizeriaren klerikalismoaren kontrako joera. Sarritan nabarmendu izan da nola euskal herriak, berakin bat egiten zuten apaizenganako agertu izan dituen maitasuna eta kidetasuna, eta baita bertsolarien ahotatik eta, apaizeriaren kontrako ironia ere. Ez dut uste maitasun-kidetasun horrek eta ironia horrek elkar ukatzen dutenik. Herriak bere antiklerikalismoa adierazteko erabili dituen bi bide besterik ez dira.

2. Euskal Herria eta Eliza: Kolonialismoa.

Kultur kolonialismoa, eta horrekin batera Elizaren kolonialismoa, aztertu nahi dugu hemen. Euskal Herriaren egoera aztertzean, bada hor-

tik kolonialismoaren eskemak erabili nahi ez dituenik, hegoaldeari dago-kionez behintzat, ekonomi aldetik Estatu kolonialista baino aurreratua-go dagoelako. Baina kultur kolonialismoaz beldurrik gabe mintza gaitez-keela uste dut, eta Elizaren kolonialismoaz ere bai, hau kultur kolonialis-mo horretan tarteko den neurrian.

Lehen aipatu dugu Elizaren kulturaldu beharra, zera historikoa denez. Kulturalpen hau, ordea, eta Elizaren historiak erakusten duenez, herrien arteko kultur dinamikak oso baldintzapetua eduki du. Baldintza hauk eduki behar dira gogoan, Elizaren Ebanjelioaren zabalkundea eta Eliz instituzioen finkatzea zernola egingo den jakiteko: zein herritatik datorren Elizaren zabalkundea; herri horretan nola dagoen kulturaldua Eliza eta nola ikusten diren kulturaren eta Elizaren arteko harremanak; Eliza abiatzen deneko kulturaren eta Eliza hurbilduko deneko kulturaren arteko harremanak nolakoak diren.

Egoera eta kulturalpen konstantiniano batetatik eta kultur dinami-ka kolonialista ezartzen duen herri batetatik abiatzen baldin bada Eliza-ren zabalkundea, nekez askatzen da hau dinamika horretatik. Hau baieztatu daiteke, Eliz barneko profetismo indarrek gizartean eta herrien askapenerako egin duten burruka aparte.

Eliza tarteko dela, Elizaren eskuetan, esan dezakegu, mendetan zehar gainbehera etorri da euskal kultura eta Euskal Herria, kultur kolon-ialismo baten indarrez eta eraginez. Zein da Elizaren erantzukizuna prozesu honetan? Euskal Herriaren eta euskal kulturaren heriobide, heriotzori eta desintegrazio egoera honetan zein da Euskal Herriko Eli-zaren erantzukizuna eta jokabidea?

Jakina da Mendebaleko Eliza Erromatik zabaldu zela Europako herrietara, eta kultur dinamika Erromak eta latinak beste kulturak eta hizkuntzak irenstearena zelarik, Elizaren jokabidea ere Erromako inpe-rioarena izan zela. Mendebalean Elizaren hedatzeak ez zuen batere lagundu, Europa aldeko herrialdeen kulturak eta hizkuntzak indartzeko eta finkatzeko, alderantziz bai. Latina eta gehienbat Erromako Liturgia eta pentsakera ezartzera jo zuen Erromako Elizak.

Euskal Herriko Elizaren sortzeaz, zabaltzeaz eta finkatzeaz histori-gileek aurkitzen dituzten ilunak eta zalantzak aparte, hemengo Eliza egoera konstantiniano batetatik eta gure Herriari eta kulturari buruz dinamika kolonialista batetatik abiatzen da.

Elizak liturgian ezarritako latinak ez zuen gure euskara hil; baina gero latinak eta beronen alabek, frantsesak eta gaztelerak, beren legea ezarri diote euskarari Elizaren bizitza ofizialean; katekesian, sermoietan eta misioetan eta aitortegian euskara ere erabili baldin bada, euskara

besterik ez zekien herriarengana iristeko *bide* bezala bakarrik erabili duela dirudi. Elizak ez du bere hizkuntza bezala hartu euskara; oraindik ere ez du ofizialdu, nahiz eta azken urteotan liturgian eta Eliz agiri eta aldizkarietan nolabait onartu eta sartu izan.

Eliz liturgia bera kanpotik etorri zaio Euskal Herriari: Euskal Herriko Elizak ez du bere liturgi hizkera bat sortzeko aukerarik ukan. Liturgia ofizialetik kanpora, erlijiozko ohitura eta erritu batzu lehenagoko ohituretatik jaso eta bereganatu baldin baditu Euskal Herriko Elizak, horik bazterrean bezala bizi izan dira.

Euskal Herriko Elizak, Herri honi Espainiak eta Frantziak ezarri dioten muga politiko eta kultural banatzailea onartu egin du mendetan zehar, bere instituzioak ere zatiketa horren arabera eratuz. Eta lehenago mendean Euskal Herriko Eliza zentralismo liberalaren kontra burrukatu baldin bazen, Euskal Herriko nortasuna nolabait defendituz, Euskal Herria bera eta honen kultura baino gogotanago zuela dirudi Euskal Herriaren “Jainkoa eta Lege Zaharra”.

Baina hemen bereziki ikutu nahi dugun epea azken berrogei urteotakoa izango da, hurbilena dugulako eta ilunena ere bai Euskal Herri hegoaldearentzat, eta agian iparraldearentzat ere bai. Azken diktaduraren kolonialismo kulturala gogorren eta makurrenetarikoa izan da hegoaldearentzat. Eta zoritxarrez, Euskal Herriko Eliza horrekin nahasia ibili da.

Has gaitezen Eliz instituzioaz. Lehendik zuen zatiketaz gainera —iparraldea eta hegoaldea— beste zatiketa handiago bat ezarri zaio Euskal Herriko Elizari eta, beraz, Euskal Herriari. Gasteizko Diozesia hiritan banatzearekin batera, Euskal Herriko Eliza hiru probintzian zatitua eta banatua gelditu zen. Eta Elizak onhartu egin zuen zatiketa hori. Eta zatiketa makur horren ondorioak oraindik sufritzen ari da, eta sufritu beharko ditu gerora ere, nahiz eta azken urteotan euskal diozesi batzu elkarrekiko ekintza batzutan abiatuak izan. Zatiketa guzti honek zera ekarri du ondorio bezala: Euskal Herriko Eliz instituzioak banatuak egotea eta Euskal Herriari begira ez egotea, Euskal Herriko Elizaren batasunik eta batasun kontzientziarik eza, Paristik edo Madrildik hemengo Eliz jokabideak eta politika bideratzeraz eta arautzea.

Instituzio gizeoi dagokienez, euskal diozesetako apezpiku asko kanpotarrak izan dira, eta oraindik ere lau halakoak dira. Gehienek ez dute euskaraz jakin, edo ez dute egoki jakin behintzat. Euskal Herriaren benetako etsairik ere ezagutu dugu apezpikuen artean. Apaizen banatze-koan ere jokabide zitala erabili izan da sarritan, batez ere gerra ondorengo urteetan: euskaraz ez zekienik, herri euskaldun-euskaldunetara bida-

liaz. Alde honetatik, negargurea ematen du Gipuzkoako apaiz mordoxka batek Font Andreu-ri, Gipuzkoako apezpiku izendatu zutenean, idatzi zion gutunak.

Hezkuntzaren alorrean Euskal Herriko Elizak eraman duen jokabidea ez da argiagoa. Seminarioak eta komentuenak (serorenak nahiz fraileenak) gazteak eta erlijiosoak deseuskalduntzeko tokiak izan direla esan daiteke bildurrik gabe. Eta ez du balio, euskal kulturaz gehienbat arduratu eta nabarmendu direnak Seminarioetatik eta frailetzetatik atera direla esateak: gutxi batzu besterik ez bait dira izan horrelakoak, eta sarritan giro eta ingurune kontrako baten aurka burruka eta lanegin behar izan dutenak gainera. Mojak eta fraileak herri euskaldunetara ala erdaldunetara bidaltzean ere ez da politikarik erabili edo politika jatorrik ez behintzat askotan. Elizgizon eta elizemakumeen aldetik sarritan baino sarritanago —ia beti— erdaraz ez zekiten kristauei edo herritarrei hitzegiteko izan da euskara, baina beren bizitzatik eta etxeko harremanetatik bazterturiko hizkuntza.

Areago, zenbait apaizen jokabidek, Nafarroan batez ere eta Iparraldean, eragin handi-handia izan du, herrian euskara gal dadin. Aipamen bat ekartzearren, hona hemen zer dakarren 1973ko (537.zenb.) *Zeruko Argiak*, Sánchez Carrion-ek argitaraturiko lan bat aztertuz: “Nafarroan euskarari elizan prestijioa falta zaio, benetako ofizialtasunik izan ez duelako. Gotzaien aukeramenetan ez da kontuan hartzen euskal faktorea; pastoralak erdera hutsean argitaratzen dira; fedeprogramaketa erderadunentzat ideaturik dago ia osoro. Okerrago oraindik, izan dira apaizak molestatuak euskara elizan sartu nahi izan dutelako. Gero ikusiko dugunez, 25-en bat herri eta herrixkak gaur egun erdera hutsean dute liturgia, nahiz eta herri horietan bai herri gehienak, bai herriko gizon larrienak euskaradunak izan. Honelakoxea da euskararen egoera Sanchez Carrionen inkestan”.

Azken Kontzilioaren ondoren, euskal Iparraldean *Fededunak* elkarteak sortu behar izan zuen hango zenbait kristau euskaldunek, bere herrietan liturgia euskaraz eman zedin eta batez ere neska-mutiko euskaldunei katekesia euskaraz emateko bideak urratzeko. Izan ere, Eliza ofizialak ez bait zuen benetako erantzun jatorrik ematen.

Frantziako eta Espainiako kolonialismoak batez ere azken mende honetan, eta bereziki azken urteotan, Euskal Herriari ekarri dion oker bat neurrigabeko emigrazioarena eta inmigrazioarena izan da. Hegoaldeko Elizak zer egin du kanpotik zetozen langile olde horik euskal kulturaren eta kulturagintzan integratzeko? Ala errazenera jo du, horrela Esta-

tuaren politika desintegratzaileari eutsiz eta lagunduz? Alde honetatik jo duela esan daiteke.

Elizak bi bide nagusi baditu inmigranteak eta langileak euskal kulturgintzan integratzeko: zuzeneko bere pastoraltza eta irakaskintza. Pastoraltzan (liturgian, katekesian, hitzaldietan, etab.) erdarara jo izan da sarritan eta gehiegitan, nahiz eta entzule gehienak euskaldunak izan, bat edo beste erdaldunak zirela eta. Horrela, euskal Herriaren eta kulturaren integrazioa bilatu beharrean, erdaraz eta erdal kulturaz euskara eta euskal kultura irenstera eta zapaltzera jo du Euskal Herriko Elizak.

Eliz kolejoetako jokabidea, berriz, euskal gazteria deseuskalduntzeko biderik eta tresnarik bikainenetako izan du Estatuak. Estatuaren programak beren horretan hartuz eta ezarriz eta ikasleei eskolatik kanpora ere erdaraz eginez, eskola nazionalak beraik baino erdal kutsu handiagokoak izan dira sarritan erlijiosoen eta mojen kolejoak.

Oraindik eta berriz ere zera entzuten ari naizela iruditzen zait: Eliza izan dela euskal kulturaren alde lanik handiena egin duena. Nere ustez, hau ez da egia.

Elizgizon batzu bai —ez oso asko— izan dira euskal kulturgintzan saiatu direnak, baina ez Eliza instituzio bezala; eta Eliza-instituzioak bere katekesian eta sermoietan, etab. euskarari heldu baldin badio, eta nolabait horri eutsi baldin badio, ez da izan hori euskararen eta euskal kulturaren aldeko aukera bat egin duelako, bere pastoraltzarako beharrezkoa zuelako baino. Alde honetatik, Eliz instituzioak lanik handiena egin du pastoraltzan, euskararen bidez, baina ez du lan hori euskararen eta euskal kulturaren alde egin. Bestalde, eta beste instituzioen artean, euskal kulturaren alde lanik handiena egin duena Eliza izan dela esatean, arrazoinbide bihurri bat ezkututzen da. Izan ere, konstantinismo garaian Eliza bera agertu ohi da kulturaren eta gizartearen eragilerik nagusien bezala. Orduan gehienbat bere esku dago kultura hori alde batetara ala bestetara zuzentzea. Zera esatea bezalatsu litzateke: nazioaren ekonomia zuzentzeko ekonomi ministrogoak egin duela lanik handiena, ekonomia horrek porrot egin duenean.

Izan ere, Euskal Herriko Elizari bere eskuetatik abiatu zaio heriotz bidera Euskal Herria, bere kultura eta guzti. Bere eskuetan zuen herri bat eta kultura bat salbatzeko profetismoa eta burruka gogoa falta izan zaio; nahiago izan du bere burua salbatu, euskal Herriaren eta euskal kulturaren kaltetan izanik ere: kolonialismoak ezarritako *situazio* bezala hartu du kultura, bere burua salbatzeko situaziorik egokiena bezala; *situazio* kultural horri heldu eta eutsi dio, nahiz eta euskal kultura zapaltzen zuen *situazioa* izan hori.

Baina Euskal Herriko Elizak bere burua situazio horretan salbatu eta finkatu nahi izan badu ere, ez da euskaldundu, ez da oraindik euskal Eliza bihurtu. Euskal Herriak ez du Elizarik “sortu”, eta horregatik ezin esan oraindik Euskal Elizarik daukagunik. Baina Eliza herri bakoitzean herrikotu eta kultura bakoitzean kulturaldu ez denean, kulturak bakoitza barnetik irudikotzen edo konfiguratzeko ez duenean, herritik kanpora gelditzen da, eta bere situazioari eusteko, agintea duten indar politiko, ekonomiko eta kulturaletan oinarrizkoak da. Orduan herriaren kulturaren gainegitura bezala gertatzen da Eliza. Eta arriskua du, bere situazioa eta finkapena nolabaitekoak eta zalantzarokoak izango ote diren.

Elizak herriarekin eta herri kulturarekin batekin ez duenean, benetakoa sustrairik gabe gelditzen da, nahiz agintea dutenen aldetik euskarri tinkoa eduki. Orduan, herriak berak, Paulo Iztuetak dioen bezala esaten baldin badu “Guk, euskaldunok, ez dugu gure Elizarik”, herri horren Elizarekiko apostasia normala dela esango nuke.

Ez ote da honelakorik gertatzen ari Euskal Herrian, hain elizkoia dela hainbeste aldiz baieztatu den herri honetan? Izan ere, mendetan zehar hain elkarturik eta kidegurik bizi izan omen dira Eliza eta Euskal Herria; baina, gaurregun, euskal kultur, politik eta sozial dinamikan sutuenik eta bizkorrenik lanean dabiltzanak Elizatik urruti edo kanpora dabiltza, neurri handi batetan behintzat. Esangura handia du fenomeno honek. Historia oso bat ukatzen ari ote gara euskaldunok, euskal Herria eta euskal kultura baieztatzen nahian gabiltzalarik?

3. Garai berrietako erreformismoa.

Irekitasuna eta eraberrikuntza edo erreformismoa dira azken urteotan gure inguruan gehien erabiltzen diren hitzak. Eta hauetaz bete da Kontzilio ondorengo Euskal Herriko Eliza ere. Azken hamar urteotan Euskal Herriko Eliza ofiziala eraberritzaile bezala agertu zaigu eta neurri batetan irekia ere bai, zenbait kristau talde iraultzailearen eta zenbait apaiz eta kristau integrista eta atzerakoiren artean. Irekitasun dinamika bat euskal arazoaren eta gizarte arazoaren aurrean nabarmendu da; eraberrikuntza asmoa, berriz, Elizaren barneko egitura, pastoraltza eta hezikuntza alorretan agertu da.

Kontzilio ondoren Diozesi hauetara etorri diren apezpikuek irekieraren edo irekien eta kontziliarren fama ekarri dute. Baina kontzilian eduki behar da, Gasteizko eta Baionako apezpikuak Kontzilioaren aurretikoak direla, eta bata nahiz bestea, arrotzak izateaz gainera, euskal ara-

zoari buruz eta sozial arazoei buruz aski edo oso itxiak agertu direla; eta bereziki Gasteizkoak Eliz barneko bizitzan ere integrasta iraun du eta irauten du oraindik ere. Honegatik ere ez dute batasun bat lortu, ez instituzionalik eta ekintzakorik, Euskal Herriko apezpikuek. Gehienik ere Liturgiako euskal itzulpena egiteko nolabaiteko batasun pittina egin zuten, baina hori ere erdi-hutsean gelditu da.

Azken lau urteotan Donostiako, Iruineko eta Bilboko apezpikuek beren bilerak dituzte sarritan, eta horrela neurri batetan bederen beren Diozesien arteko batasun instituzional bat lortzen ari dira; baina maila horretan ere oso urrun gelditzen da, Euskal Herriko Elizaren batasuna, eta bururatzerik ere ez dago Gasteizko apezpikuak eta Iruinekoek hor irauten duten bitartean.

Euskal Herriko Eliza instituzionalaren irekitasuna euskal arazoari buruz zenbait pastoraletan, homilitan eta deklaraziotan azaldu da, alde batetik; eta bestetik, Liturgian euskarari eman zaion lekuan eta ikastolei buruz Eliza horrek ukan duen jokabidean. Irekitasun oso neurtua eta mugatua! Kutsu moralista eraman du ia beti, eta ez Elizak Herriaren burruka bidezkoetan adierazi beharko lukeen elkartasunaren eta solidaritatearen indarra eta bizitasuna. Horrela nolabait Euskal Herriko Elizak bereganatu nahi izan du euskal mugimendua; baina Herri honen burruka eta dinamika askozaz aurrerago joana da azken urteotan eta iraultzaren bidea hartua du.

Bestalde, Euskal Herriko Elizak, edo hemengo Diozesiek ez dute jokabide argi eta garbirik hartu euskara batuaren alde, edo Euskaltzaindiaren alde behintzat; esan daiteke esan Eliza instituzionala oztopo eta eragozpen gertatu dela hizkuntzaren aldetik ere Euskal Herriaren batasuna egitekoan.

Euskal Herriko Elizak —orokorki harturik— azken Kontzilioaren araberrako eraberrikuntzaren bidea hartu du bere barneko egitura eta jokabideetan: Liturgian, pastortzaren antolaketan, batzorde berriak eratzean (laikoak eta apaizak ere barne sartuaz), etab. Baina, sarritan gertatu ohi den bezala, eraberrikuntza azalberrikuntza edo itxuraberrikuntza gertatu da.

Apaizen hezkuntzari dagokionez, krisialdi gogor batek eraginda batetik eta bai gaurko munduaren eskabideei erantzun nahian ere, molde berriak sortu dira; baina gero apaizaren ereduak aukeratzen eta, beraz, apaiz berriak egiterakoan, bildur handiz eta susmo txarrez beterik jokatzen izan da, euskal eta gizarte dinamika bizienean sarturik edo sartuzale zebiltzan apaizgaiei buruz.

Azken urteotan, langileen burruketan nahasia gertatu da Euskal

Herriko Eliza ofiziala, nahiz elizak edo parroketako eta komentuetako biltokiak utzi dituelako, nahiz grebalarien aldeko dirubilketak egin dituelako, nahiz zenbait deklaraziotan. Baina hemen ere unean uneko eta lekuan lekuko sinpati, laguntza edo protesta batetatik ez da pasa izan Eliza instituzionalaren ekintza. Hau da, ez da eredu ekonomiko-sozial liberala eta kapitalista bere zalantzan jarri izan, edo inoiz jarri izan bada, oso hitz apalez eta bihurriez.

Rafael Agirrek, Bizkaiko Elizatik begiratzuz batez ere, honela dio Euskal Herriko Elizaren erreformismoari buruz: “Urte hauetan, Bizkaiko Eliza, gero eta gehiagoan, herriaren eta euskal kulturaren errealitatea bereganatuz joan da: liturgian, hizkuntzan, apaizgaien hezkuntzan... Abiapuntua, jasan ezineko bazter utziaren egoera zen, eta Eliz egiturak Estatuaren zentralismoaren arabera moldaturik ziren, eta euskal nazio errealitatea haintzat hartzen ez zelarik. Bada, noski, zereginik frango alde horretatik oraino ere” (*Euskal Eliza zertan den*, 38.or.). Berdintsu esan genezake, agian, Gipuzkoakoari buruz, eta neurri batetan Nafarroakoari eta Arabako zenbait apaizei buruz. Iparraldean oraindik oso bakarkakoak dira benetan euskal arazoa gogotan hartu dutenak.

Rafael Agirrek adierazten duenez, bereganatze, errekupeazio kutsua darama erreformismo edo eraberrikuntza horrek. Eta horrexegatik ere ezin dio barnetik heldu Euskal Herriaren kultur, sozial, eta politik dinamika berri eta iraultzaileari. Horregatik iraultzabide honetatik abiatuak diren burrukalariek eta langileek Euskal Herriko Elizari ihesgingo diote. Honela, berriz ere Euskal Herriko Eliza gaurko euskal sozial, kultur eta politik dinamika bizienetik urruti geldituko da.

Izan ere, iraultza da Euskal Herriaren oihua; eta Euskal Herriko Elizaren deia, berriz, eraberrikuntza edo erreforma.

Hala ere, Eliza instituzionalean bertan, apaiz askotxoren aldetik eta bereziki kristau herrian, talde askoren aldetik, ulertu eta bereganatu nahi izan da euskal dinamika sozial eta kultural berri eta iraultzaile hau. Gogoan ukan beharra dago Eliza unibertsalean, beste inon baino handiagoa izan dela agian hemengo kontestazioa (honetarako oso argitasun handikoa da Paulo Iztuetaren tesi berria, oraindik argitaratu gabea), bai apaizen aldetik eta bai kristau herrikoen aldetik; eta kontestazio hau, Eliz barnera begira izan baldin bada ere batzutan, gehienetan Elizak Euskal Herriari, euskarari, euskal kulturari eta euskal langileriari buruz duen jokabideari begira izan da.

Baina kontestatizioak ezezik, oso gogoan ukan behar dira zenbait apaizen eta kristau talderen aldetik eraman den burruka, euskal herriaren eta langileen burruketan nahasiaz. Honi begira eta Eliz barneko bizi-

kera berri bati begira ere sortu eta indartu izan dira azken urteotan hainbat apaiz eta kristau talde eta mugimendu berri: Gogor, Oinharriko kristau elkarteak, Fededunak, Sozialismoaren aldeko kristauak, etab.

Kontestazio eta ekintzako talde eta mugimendu guztiok Eliza instituzionalaren erreformismoa nabarmenago jartzen dute oraindik. Izan ere sarritan —gehienetan— Eliza ofizialaren susmo txarren pean edo begi okerren azpian jokatu behar izan bait dute.

III. EUSKAL ELIZA BERRI BAT EUSKAL KULTURA BERRI BATETAN

Eliza berriaz mintzatzeak susmo txarrak piztu ohi ditu sarritan, bai eta *euskal elizaz* mintzatzeak ere.

Euskal Eliza esan beharrean, nahiago lukete batzuk *Euskal Herriko Eliza* esan, edo, oraindik hobeto, *Euskal Herrian Eliza* (beste “Bizkaian Eleizea” bezalatsu edo). Testamentu Berritik, eta bereziki San Paulogandik hurbilago dabilela eta teologi kutsu handiagoa duela iruditzen zaie agian “Euskal Herrian Eliza” esaten bada. Eta, bestalde, *Euskal Eliza* esaten bada, Galikanismoaren, Febronianismoaren eta beste horrelako “-ismo” guztien doinu gaiztoak datozkie nonbait burura. Nere ustez, teologi aldetik esanahi osoa eta jatorra du “Euskal Eliza” izenak; antropologi aldetik egokiena bera da; eta *Euskal Herriko* edo *Euskal Herrian-go* Eliza kolonialistaren kontrako baieztapen tinkoena *Euskal Elizak* eman lezake.

Eliza berria esan beharrean, *Eliza berritua*, *berriztatua* edo *eraberritua* nahiago lukete batzuk, “Eliza berria” delakoak Kristoren Elizarengandik haustura bat eta eten bat esan nahi duela edo, iruditzen bait zaie. Baina beharbada ez dira konturatzen horrelakoak, beren “Eliza berritu” hori “zaharberritu” bat besterik ez dela; edo agian konturatzen dira, eta horixe nahi dute, hain zuzen ere, erreformismoaren legeen arabera.

Baina *Euskal Eliza berria* esaten dugunean, Eliza horri bere “berritasuna” ez datorkio Kristorena ez, beste zerbait izatetik; eta bai benetan *euskal* Eliza, ez beste inolako edo inongo Eliza izatetik. Gregorio Handi Aita sailduak, Ingalaterrako misiolari bezala bidalia zuen eta hango kristauen apezpiku egina zuen Agustin sailduari idatziriko gutun batean ez zuen horrelako bildurrik ukan, “Eliza berria” hitzak erabiltzeko.

“Ingelesen Eliza berria” —“Nova Anglorum Ecclesia”— sortu eta eraiki zezala, eskatzen zion Aita sainduak Agustini. Eta jakina da zein testuingurutan eta nolako asmoz esaten zuen hori Aita sainduak; ingelesen kulturaren eta haien ohituretan finkaturiko Eliza sortu nahi zuen, hain zuzen ere.

Horrela, Piarres Xarritonek, bibliografian aipaturiko bere idaztarian “Euskal Herriko Eliza Berri Euskalduna” eskatzen du; izan ere, eta berak dioenez, “dakiguna da, ez dugula Eliza Euskaldunik egundaino ikusi Euskal Herrian”.

Honela bada, kolonialismoak eta klerikalismoak jotako hemengo (hemen finkatu den) Elizaren kontra, Euskal Eliza Berri bat eskatzen dugu: euskalduna eta herritarra.

Baina Euskal Eliza Berri bat ezin daiteke uler Euskal Kultura Berri batetan ez baldin bada.

Horregatik euskal kultura ezin daiteke defini atzekoari begira bakarrik, euskal *tradizioari* begira bakarrik; ezin daiteke defini oraingo euskal kultur egoerari begira bakarrik ere, hau neurri handi batetan ezarri izan zaigulako: ezin dezakegu beraz lorturiko edo ezarritako *situazio* eta egoera bezala bakarrik uler euskal kulturua. Beharrezkoa dugu *kreazio* bezala ulertzea euskal kultura, aurrera eta etorkizunari begira: Euskal Herri Langileak (hau da, Euskal Herrian beren lana Herri honen alde ematen dutenek), herri horrek berak sortuko eta taxutuko duen euskal kultura horixe izango da euskal kultura berria; berria izango da, bereziki oraingo situaziozko kultura desintegratuari eta deseuskaldunduari begira; alde honetatik, iraultzaile izan beharra dauka euskal kultur dinamika, benetan euskal kultura izango baldin bada. Kultur iraultzak ez du kultur *tradizio* jatorra ukatzen; kultur *situazio* konkretu bat ukatzen du kultur iraultzak.

Euskal Herri berri batetan eta batetatik Euskal Eliza berri bat sorzen saiatu beharko dugu.

Nekez ukatuko du inork euskal kultura krisialdi larri batetan abiatu dela; krisialdi honetan alde batetik historiaren eboluzio legeek beraiek jokatu dute: honela, euskal kultur tradizioari dagokionez, nekazal kultura hura industri kultura bihurtu da eta baserrietako bizimoldeari hiriko bizimoldeak jan dio lurra; honek, berriz, pentsaera, jokabide, ohitura, instituzio sozial, giza harreman, erlijio molde eta hizkuntzaren aldetik ere krisialdi handi bat ekarri dio Euskal Herriari.

Historiak dakarren kultur aldaketa hau adierazi nahi du K. Mitxelenak, orain dela urte batzu, Txillardegiren *Leturiaren egunkari izkutua* nobelari egin zion sarreran: “Ezta zalantzarik, dio, Lizardigan. Pozik

dago biziak eskeintzen dionaz eta fedeak agintzen dionaz. Alferrik billa-tuko duzute beragan Europa eta mundu guztia dardarazten asia zen lur-ikararen berririk. Dardarak ezkinduen artean ukitu edo... Bizileku sendoan bizi zen. Zimendutan ez ezik, etzen paretetan artesiturik ageri. Axalean zertxobait aldaturik ere bizimodua, uste, iritzi ta sinesteak oitu-razkoak ziren, gurasoengandik zetozenak, eta gizaldi berriek aztertu gabe bereganatzen zituzten, beste edozein ondasun bezala... Nik eztut Txillardegi bakarrik ikusten. Txillardegi eta Leturiaren egunkari izkutua gizaldi berri baten eta gizaldi orren obren aintzindari gisa agertzen zaiz-kit. Ez dut uste oker nagoenik eta enuke inolaz ere oker egon nai”.

Baina kultur aldakuntza honek ez du aldakuntzaren esanahi hutsa, gure eskuetan aldatu balitzaigu bezala. Aldakuntza ezezik, zapalkuntza bat dago euskal kulturaren eta Euskal Herriaren gaurko krisialdiaren sustraian: Euskal Herriaren industrialtzearekin eta iritartzearekin batera kapitalismoaren garaipena etorri da, eta klaseen banaketan klase gain-hartzailearen kultura ezarri zaio Euskal Herriari; bestalde, Herri honen krisialdi sozio-kulturala areagotu eta larriagotu egin da, politika kultural eta sozial jakin batek euskal kulturaren eta euskal gizartearen eta Euskal Herri osoaren desintegratzera jo duelako: hezkuntzaren, komunikabi-deen, instituzioen, hizkuntzaren eta erlijioaren politika ofizialak, euskal kultur kultur *tradizioaren* krisialdi normal bat izan zitekeena, kultur desintegrazio *situazio* bihurtu du.

Orduan gaurregun euskal kulturaren aukera eta alternatiba berri eta iraultzaile bat ipini eta bideratu beharrean gara; eta horren arabera euskal Elizaren dinamika berri eta iraultzaile bat ere bai.

1. Euskal Eliza hiritarra.

Kultura hiritarrak ez du jendearen bizingurunea bakarrik adieraz-ten; ez da hauzoetatik hiritara, soroetatik kaleteara pasatzea bakarrik. Kultura hiritarrak lanbide berria ere adierazten du: baserrietatik indus-triara pasatzea, halebegia; ohitura, gizarteko harreman eta instituzio sozial berriak esan nahi du kultura hiritarrak: kultura autonomoa da Eliz agin-tariei dagokienez; azkenik, kultura hiritarrak pentsamolde berria ere adierazten du: erlijioari buruz sekularra gertatzen da kultura modu hori.

Euskal mundu berri honetan Elizak ez du lehen bezalako kultur eraginik; pobretasun hau onhartu beharra dauka. Alde honetatik, kons-tantinismoaren egunak amaituak dira. Kultur dinamika autonomo eta

sekularrean Elizak bere mezu profetikoa eskaini eta zabaldu beharko du, ez “bere” kultura.

Lehenago nekazal herrietan herriko eliza eta bertako instituzioen inguruan zebilen, neurri handi batetan, herri jendearen bizikera eta herriaren instituzio zibilak ere bai: elizatik zuzendu zitekeen herri jendea, beronen homogenotasunean eta batasunean; kultura hiritarrean, eliza beste etxeen azpian galtzen da eta ez da gizarte pluralista eta sekularrean bizitzaren erdigunea; horregatik talde txikitari eta jokabide profetikoen bidez agertu beharko du Elizak bere eragina. Alde honetatik apaizen bizimoldea eta egitekoa ere sakon-sakonetik astindua gertatzen da kultura hiritar, sekular eta autonomo horretan.

Baina Elizaren instituzioak eta jokabideak ezezik, kultura hiritarak Elizaren hizkera ere aldatu beharra adierazten du: Ebanjelioaren mezua emateko darabilen hizkera (homilietan, katekesian nahiz teologian) eta liturgia egiteko darabilen erritu hizkera.

Benetan teologiak gaurko kultur dinamikaren adierazle eta kritikatzailerik izan nahi badu, euskal teologiak gizarte hiritar eta industrialaren dinamikan sartu beharko du eta horren hizkera bereganatu. Baina teologiak eta ebanjelioak mezu kritikoa eman behar dute: eta badute zereginik gaurko euskal kultura hiritar eta industrialaren indar tzarrak astintzen, herriaren ingurune ekologikoa hondatzen duten indar tzarretatik hasita.

Baina hizkera teologikoarekin batera, “hizkera” liturgikoa ere krisi larrian jartzen du kultura hiritar eta industrialak. Gure liturgia nekazari-entzat, artzaintzat eta arrantzaleentzat eratua dago. Gaur kultura hiritar eta industrialari dagozkion errituak eta hizkera sortu beharra dago. Euskaraz jartzeak ez du alde horretatik gauza handirik konpondu, arazoa nabarmenagotu eta biziagotu baino.

2. Euskal Eliza bateratzailea.

Eliza *bat* dela aitortzen dugu; eta batasun hori Eliza partikularrak ere bere berezitasun bezala behar du. Baina historian bizi den Elizaren batasuna zerbait dinamikoa da: batasuna egin egin behar da, Eliza bat eta batua izan dadin. Euskal Elizak bateratzailea izan beharra dauka gaurko Euskal Herri zatikatu eta desintegratu honetan.

Aurrenik baterakuntza soziala behar du euskal gizarteak. Zer esan nahi du honek Elizarentzat? Klaseen arteko burrukak eta tirabirak

biguntzen eta leuntzen saiatu behar duela Elizak, klase agintarien eta gainhartzaileen jokoaren eginez edo?

Euskal Herri hegoaldean mende honetan eta bereziki azken hogeitabost urteotan ukan dugun inmigrazioa ezaguna dugu. (Iparraldean emigrazioa izan da fenomeno; alderantziz bada ere, emigrazio horrek eta erantsi zaion paristar jauntxoaren eta turistaren inbasioak desoreka eta desintegrazio sozial berdintsua ekarri dio Iparraldeari). Kanpoko langileen honeratzeko neurrigabeak arazo izugarriak ekarri dizkio Euskal Herri Langileari, batez ere integrazio sozial eta kulturalerako biderik jarri ez delako, alderantziz baino. Kanpotik etorriak deserrotuak izan dira beren kulturatik eta hizkuntzatik, eta ez dute hemen sustraitzeko eta integrazteko betarik ukan, denok ezagutu dugun sozial eta kultur politika ofizial kolonitzaileagatik. Honelako kolonialismoak, langileriaren emigrazioan gauzatzen den kolonialismoak, langile emigratuari dakarkio kalte-rik handiena, gizarte eta kultura aldetik erabat deserrotua uzten duelako.

Baina bertako langileriari ere ondarena dakarkio politika horrek: euskal langileari, lanaren fruitua kendu ezezik, bere kultura eta hizkuntza ere kendu egin zaizkio, eta horretarako kanpotiko langileria erabiliaz gainera. Horrela euskal langilearen alienazioa erabatekoa gertatzen da: ekonomikoa eta kulturala.

Euskal Herri Langileari (bertakoei eta kanpotikakoei) Herria kendu zaio, Euskal Herriaren kultur ingurunea desintegratzean. Izan ere, Euskal Herria zatikatua eta desintegratua dago kulturaren eta hizkuntzaren aldetik; eta desintegrazio horretan sarritan bertako langileak eta kanpotikakoak elkarren kontrako burrukan jarri nahi izan dira.

Euskal Herri Langilearen bateratzaile izan behar du Euskal Elizak, benetan Elizaren batasun misterioa bizi duela agertu nahi baldin badu, Eliza *bat* dela agertu nahi baldin badu.

Oso nabarmena da nola Elizaren aldetik ez den ia batere aztertu Euskal Herriko emigratioaren eta inmigratioaren arazoa. Hauxe du, hain zuzen ere, gaur aurrean duen arazorik nagusienetakoa. Eta bere eginkizunik nagusia Euskal Herriko Langileria osoa euskal Eliza baterata biltzea duela uste dut, horrela Langileriaren beraren baterakuntza bilatuz, eta Euskal Eliza *batua* izan dadin.

Arazo hau ez da abstraktua; parrokiak bakoitzak, kristau elkarte bakoitzak, Eliz instituzio bakoitzak duen arazoa da: kanpokoak eta bertakoak direla, euskara eta erdara direla, bertakoen eta kanpotikakoen ohitura eta jokabideak (erlijiozkoak ere bai) desberdinak direla, etab. beti dago hortxe euskal gizartearen, euskal langileriaren sozial desintegrazio arazoa. Eta Elizaren aldetik jokabide zuzen batzu hartzeko,

aurren-aurrenik azterketa zuzen batzu egin beharko lirateke. Berehala abiatu eta bultzatu beharko lituzke euskal Elizak emigrazioari eta inmigrazioari buruzko azterketak, soziologiaren, psikologiaren, antropologiaren aldetik.

Benetan tristea izaten da, gure Diozesietan emigrazioaren eguna ospatzen dugunean, zernolako agiriak eta gogoetak ematen diren: abstraktuak ezezik, Alemaniara edo Suizara joan diren langileei buruz dihardute gehienetan, jakin badakigularik nazio horietara langile euskaldun gutxi joan dela, eta emigrazioaren benetako arazo larria hemen bertan dugula.

Baina baterakuntza sozialarekin batera baterakuntza nazionala ere bilatu beharra dauka euskal Elizak, benetan Eliza *bat* eta *batua* izango bada Herri honetan.

Aurren-aurrenik Euskal Herri bat badela ezagutu beharra dauka argi eta garbi Euskal Elizak; eta Herri horri dagokion Eliza partikular bat izan nahi baldin badu, ez lioke baliorik eta indarrik eman behar Estatuen artean Herri hori zatikatzeko eta erdibitzeko jarri duten mugari.

Integrazio eta batasun nazionalaren bila dabilen Herri honen dinamikan sartu beharra dauka Elizak, benetan Euskal Eliza izango baldin bada. Eta horretarako ez da aski Liturgi Batzorde bat bakarria eratzea. Urteak dira Euskal Diozesietako Apezpikuen Konferentzia eskatzen dihardutela euskal kristauek eta kristau ez diranek ere. Eta horrekin batera, bestelako Eliz instituzio guztietan agertu beharko luke Euskal Elizak Euskal Herria beronen osotasunean biltzen duela. Bateratzailea izanez bakarrik aitortu ahal izango du Euskal Elizak, Eliza bat eta batua dela.

3. Euskal Eliza euskalduna.

Elizaren berezitasun berezkotzat bezala *katolikotasuna* aitortu ohi dugu: Eliza katolikoa. Baina katolikotasuna ez da Elizaren tasun abstraktu bat, derrigorrez eduki behar duena eta eduki badaukana, eta kitto. Euskal Elizak, Eliza partikular bezala Eliza egiazkoa izatekotan, katolikoa izan beharko du. Baina katolikotasun hau dinamikoa eta konkretua da: Herri bakoitzean eta kultura bakoitzean konkretatzen dena eta kultura guztietako giza balioak eta sorkariak biltzen dituena.

Horregatik, Euskal Elizak katoliko izatekotan, benetan euskaldun izan beharra dauka: euskal kulturaren barne konfigurazioa lortu beharra

dauka, Eliza partikular honek eta beste Eliza partikular guztiek Eliza unibertsal katolikoa osa dezaten. Horretarako bertakotu, euskal kulturaldur beharra dauka hemengo Elizak.

Aipatu eta aztertu ditugun baterakuntza soziala eta nazionala baterakuntza kulturatera biltzen dira. Herri honek badu euskal kultura bat, euskal hizkuntza batekin: hauxe onhartu beharra dauka Elizak. Orduan Herri honen baterakuntza soziala eta nazionala euskal kulturaren baterakuntzaren eta integrazioaren bidetik doaz: Herri hau euskalduntzetik.

Euskal Herri honek bere kultura zapaldua du; horregatik bere dinamika iraultzailea kultur askapenetik du; askapen hau, ordea, euskal kultura baieztatzetik eta indartzetik datorkio. Euskal Elizak benetan herri honen askatzaile agertu eta izan nahi badu, euskal kulturaren baieztapena egin beharra dauka. Kolonialismoa ukatu eta honen kontrako burruka eratu duen herriarekin bat egin beharra dauka, Erromako edo Espainiako edo Frantziako eliza izan ez dadin, eta bai benetan Euskal Eliza.

Euskal kultura pobrea da, makala da. Pobretasun eta makaltasun horik ezarri egin zaizkio, neurri handi batetan behintzat. Pobreen Eliza izan nahi duenak, euskal kultura pobreen aukera egin beharra dauka. Honela dio P. Xarritonek, bibliografian aipaturiko artikuluan: “Bere erakapenen arabera, Elizak zor lioke, baztertua eta lehertua dagoen kultura horri, hots euskarari, bere laguntza osoa. Kultura horren sustatzen, herri horren bere loeriatik iratzartzen, ari direnen alde behar luke agertu, eta mintzatu” (9.or.).

Baina Euskal Elizak, euskal kulturaren barnean, katoliko bateratzaile eta batua, askatzailea eta pobrea izan dadin, bere burua euskaldundu beharra dauka batez ere.

Teoriaren aldetik, Euskal Elizak bere nortasunaren azterketa egin beharko luke, Teologia jator eta konkretu baten bidez Eliza partikularren eklesiologia sakonduz eta argituz, eta Antropologia zuzen baten bidez euskal gizonaren eta kulturaren berezitasunak aztertuz eta argituz. Euskal kristau pentsalariek eta teologariek badute eginkizun handirik hemen. Zoritxarrez, azken urteotan batez ere, horien buruak agortuta daudela dirudi eta horien lumak lehortuta.

Baina Euskal Elizaren euskalduntzeak beste alderdi konkretu eta praktikoak ere baditu:

a) **Instituzio alderdia.** Lehen aipatu dugu Euskal Elizaren konferentzia episkopala eta Euskal Herri osoa bilduko luketen beste Eliz instituzioen arazoa. Baina hemen esan beharra dago argi eta garbi: Ez apezpiku arrotzik eta Euskal Herriaren etsairik aurrerantzean! Honezaz gainera, Euskal Elizaren “politika”, pastoraltzaren programaketa, kateke-

siaren antolaketa... Euskal Elizak berak, autonomi osoz, burutu behar du; eta ez Madrildik edo Parisetik ezarria onhartu.

b) **Hezkuntza alderdia.** Elizak euskaldundu behar baldin badu, Euskal Herritik pentsaturiko eta landuriko Teologia egin behar du. Horretarako Euskal Unibertsitate batetan, euskal Teologi Fakultate bat sortu beharko luke eta euskal katekesi Institutu bat. Alde honetatik diozesanismoak hautsi beharra dagoela iruditzen zait. Asmo hauk betetzeko beharrezkoa iruditzen zait euskal teologarien eta kristau pentsatzaileen elkartasuna indartzea eta elkarte bat sortzea.

Euskal Herrian bi Unibertsitate daude Elizarenak (nolabait esateko); Espainiako Estatu osoan lau dira. Horrezaz gainera kontuan izan hainbat eta hainbat kolejio edo ikastetxe erlijiosoen eta mojen eskuetan daudela. Eliz Unibertsitatearen etorkizuna zein izango den Euskal Herri berri batetan, ez da erraza asmatzea. Jakin dakiguna hauxe da: Elizaren Unibertsitate horiek, benetan euskal kulturari eta Herriari erantzungo baldin badiote, erabat aldatu beharra daukatela.

Orain eskatzen den Euskal Unibertsitatea Eliz Unibertsitate haue-tatik aparte ikusten da: K. Mitxelena da, gehienbat, Euskal Unibertsitate zibil eta ofizial bat eskatzen duena. Horren barnean, Unibertsitate laiko horren barnean, eta horrek zabalduko duen hezkuntza eta zientzien artean kokatu beharko ditugu agian Euskal Elizaren gogoeta eta zientzia teologiazkoak. Dena dela, oraingo Euskal Herriko Eliz Unibertsitateak eta kolejio-ikastetxeak sustrai-sustraitik aldatu eta euskaldundu beharra daukate, Euskal Eliza baten irudia eta eredia emango baldin badute.

